

## Euskararen galera, zergatik?

*Deia*, 1977-11-06.

Hizkuntza bat, komunikabide bat da.

Komunikabide hau, lanerako prest egongo bada, erabili egin behar da. Bideak ibilian egiten diren modura, hizkuntzaren trebetasuna ere hitzginaren ondoren bat da.

Hemen bereala aurkitzen ditugu mailak.

Euskarak ba du etxe-barruko arazo guzietan, erdarak hainbat trebetasun; gutxienez, baina ez du gaur bertan unibertsitatean kimika errazki erakusteko, eta ikasteko, biderik egin. Askok ez du honen zergatia ulertzen, edo ez du ulertu nahi. Errazena: euskararen txirotasunari, baldartasunari, goi-maila hontarako doai faltari, errua botatzea da.

Eta hau ez da egia.

Egia, euskarari ez zaizkiola politika aldetik kultura bide hoiek egiteko egokitasunik eman, eta, aitzitik, hizkuntza batek izan ditzaken eragozpen eta zigor guztiak jasan izar behar izan dituela.

Zeintzuk eta nola?

Lehendabizi, hizkuntza baten indarra bere *ofizialtasunean dago*. Hizkuntza bat, naiz eta polita, trebea eta jakintsua izan, frantzesera, esate baterako hilko da. Proba bat: Algerian orain dela urte gutxirarte, 1962an askatasuna lotu arte, zigorrez ezarritakoa zen nagusi eskolan, unibertsitatean, administrazioan; baina geroztik beraka doa, eta erabilera goraka. Itsas-gora eta itsas-behera honen sekretoak: administrazioaren aldaketa. Hizkuntza bat herri baten administrazioaren ibilbide egiten bada, ikastolak, unibertsitateak, legeak, bizibideak, bulegoak, egunkari eta irrati eta telebistak, denak, hizkuntza hontan egingo dira, eta motelenak ere ikasiko du.

Euskarak itsasgora horretara heltzeko, giroa beharko du alde; etorriko ahal da, berakako bideak gorantz egiten ez baditugu, ez baita euskararen gorakaik etorriko.

Nondik etorri da beherakada hau?

Europako hizkuntza nagusi eta kultoa latina zenean. Nafarroako erresumarako ere hala zen. Hemen hasten da gure herriaren ezegokitasun bat. Penintsulako herriek latinez egiten zutenean eta euskal Herrian euskara besterik egiten ez zekiten garaian, administrazioa, latinez: herriak ulertzen ez zuen hizkuntza nagusi, eta kasu hontan, gu bakarrik! Latinaren ahaldekoak ez ginelako. Hau izan da gure pekatua. Gero, latina berez zatitzen eta *dialektoak* sortzen doazen bezala: katalana, gaztelera, gailego = portugesa, prantzesera, *hizkuntza* indarra hartzen doaz eta gizalditan iraun duen prozesu hontan hizkuntza berri hoiek ama-latinaren bularretik jaso ahal izan dute hoienera aberastasuna eta indarra erlijio, zientzi literatura eta kultura arlo guzietan, eta era berean, herri hoietako bakoitzak bere hizkuntza ofiziala egiten du.

Euskara, berriz ere ezegokitasun berean: gehien bat hitzegiten den hizkuntza (Erribera ez beste eskualde guzietan) ez da administrazioarena. Eta azkenik, gaztelera

ofizialtzen denean, berriz, noski, eta orain gainontzeko herriek bezala, hitzegiten ez dugun hizkuntza da ofiziala.

Eta, gure Foruak? galdetuko du norbaitek.

Bai, gure gure foruei esker iraun du hizkuntzak maila askotan, eta hala heldu da gaur arte. Elizak emandako laguntza ere. Trento-ko kontzilioa ezkerro, seinagarria da hontan.

Baina Foruak, nahiz eta galera gutxitu, ez ziren aski izan hizkuntzaren etorkizuna zaintzeko.

Eta zergatiak, hemen:

Euskal Herriko eskualdeak koroarekin zituzten loturak, Birrey edo Merinoak edo Korrejidoreak, erdeldun hutsak ziranez, Batzar Nagusiak eta administrazioko paperak denak erdaraz egin behar izaten ziran. Kolonietan gerta ohi izan den bezala. Honetaz gainera, ba zen koloniala den hainbat bide. Castilla-ko erresuma handia zenez, moruei, hartutako lurak irabazteko, Korteak lan-tokiak lortzeko, Amerika handi eta aberatseko bideak egiteko, dirua irabazteko, danetarako gaztelera jakitea, ez zen bakarrik beharrezko, derrigorrezko baizik.

Eta, noski, zenbat eta gaztelararen aldekoago agertu, erraztasun handiagoa itsasgorakada hor, zen olatu gainean joateko.

Gizona non nahi indar hoiek eraginda mugitzen denez, gure herriko pizkor-bizien-alprojenak hor ibili ziren igeri.

Gaur euskarak bizi duen egoera hau gaindituko badu, kondizioak behar dute aldatu. Eta kondizio hoiek, politikoak dira.